

EKONOMIA SOZIALAREN FORO GLOBALA

2018ko urriaren 1etik 3ra, Bilbo Ekonomia Sozialaren Foro Globalaren IV. edizioaren egoitza izango da (GSEF 2018), eta Arrasatek rol aktibo eta garrantzitsua jokatu du bertan.

GSEF-Ekonomia Sozialaren Foro Globala nazioarteko sare bat da, Ekonomia Sozialaren garapena bultzatzeko konpromisoa duten Administrazioak eta tokiko Gizarte Zibileko alde interesdunak elkartzen dituena.

GSEFek elkarguneak izan nahi du, perspektibak eta esperientziak partekatzeko, mugaz gaindiko elkarlanaren eta lankidetzaren bitartez, elkarte multilateraletan oinarrituta, pertsonengan zentratutako mundu inklusibo eta berdintasunezkoa lortzeko.

Ekonomia Sozialeko erakundeek eta tokiko Administrazioen arteko lankidetzaren bitartez, GSEFek kalitatezko enplegua sortzea nahi du, hazkunde justua, oinarritzko demokraziaren aurrerabidea eta garapen iraunkorra. Giza duintasuna eta ekologia iraunkorra bezalako balioak izan behar dira GSEFen jardura ororen oinarriak.

Arizmendiarietaren Lagunak Elkartek ekitaldian parte hartzeko interesa dauka, eta Arrasateko Udalak egindako deia erantzun dio, Emun Kooperatiba, Caritas, Emaus, Arizmendiarieta Kristau Fundazioa eta Arizmendi Ikastola Hezkuntza Kooperatiba erakundeekin batera, Foroaren planteamendua aztertzeko eta sortzen diren ekarpenak eta ideiak ezagutu eta partekatzeko. Lehen bilera joan den urtarrilaren 18an egin zen, eta ondoren beste batzuk egingo dira, Foroak Arrasaten garatuko dituen ekintzak programatzeko.

Gainera, Bilboko udalak GSEF 2018 jardunaldietarako proposamenen deialdia iragarri berri du. Eta Arizmendiarietaren Lagunak Elkartek bere ekarpena egin nahi dio Foroari, prestatzen ari diren bi ekimen aurkezteko, otsailaren 28aren aurretik, data horretan amaitzen baita izena emateko epea.

ARRASATE, 2018ko urtarrilaren 29a